

HERNANIKO UDALAREN ETA EREÑOTZUKO TOKI ERAKUNDE TXIKIAREN ARTEKO HARREMANAK ANTOLATU ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

Hitzaurrea

Urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuaren bidez, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikia sortu zen (*Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2010eko urriaren 18a*), gerora martxoaren 29ko 10/2011 Foru Dekretuaren bidez zuzendu zena (*GAO, 2011ko apirilaren 5a*). Toki-erakunde txikia Ereñotzuko egoiliarrei zerbitzu publikoak hobeto emateko eratu zen, eta toki-erakunde txiki horri esleitu zitzaion eskumen jakin batzuen zuzeneko kudeaketa.

Eratu zenetik igaro den denboran, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak eta Hernaniko Udalak izan dituzten harremanak gidatu dira modu informalean ezarritako lankidetzak, kolaborazioak eta leialtasun instituzionaleko betebeharretan oinarritutako funtzionamendu-irizpideen bitartez. Une honetan, bi erakundeek beharrezkotzat jotzen dute irizpide horiek formalizatzea balio eta eraginkortasun osoko arau idatzi baten bidez.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen lehen xedapen gehigarriak ematen duen legitimazioarekin, erregelamendu honek tresna izan nahi du Hernaniko Udalaren eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren artean norik bere eskumenak behar bezala gauzatzeko egon behar diren harremanen antolamendua eta funtzionamendua arautzeko.

Lehenengo Titulua. Xedapen Orokorrak.

1. artikulua. Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren egoitza.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak izango du egoitza Ereñotzu 2, 20120 helbidean, Hernanin.

2. artikulua. Dokumentuen sarrera eta irteeren erregistroa.

Ereñotzun egoitza duten pertsonak eta erakundeek beren eskaerak eta salaketak izapidetu ahal izateko, eta udal-administrazioan egin beharreko kudeaketak egin ahal izateko, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren egoitzak dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistro bat izango du, eta erregistro hori Hernaniko Udalaren Erregistroarekin erabat lotuta egongo da.

3. artikulua. Administrazio-espeditentak.

Hernaniko Udaleko langileek hasi eta kudeatuko dituzte Administrazio-espeditentak, eta, espeditente horiek elektronikoak izatekotan, telematikoki kontsultatu ahal izango dira Toki Erakunde Txikiaren egoitzatik bertatik. Nolanahi ere, espeditente horiek edozein momentutan egongo dira Tokiko Erakunde Txikiaren eskura.

4. artikulua. Dokumentazioa artxibatzea.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren dokumentazioa Hernaniko Udalak artxibatuko du, eta Toki Erakunde Txikiako langileek udalera bidali beharko dute sarrera-erregistroan aurkeztutako dokumentazio guztia paperezko euskarrian.

Toki-erakundeko langileek une oro izango dute dokumentazio hori eskuratzeko aukera, eta, betiere, dokumentazio hori elektronikoa bada, hori erabiltzeko modua telematikoa izango da.

5. artikulua. Auzo Batzarraren akta-liburua eta Auzo Udaleko Alkatetzaren dekretuen liburua.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak Auzo-Batzarreko akta-liburua eta Auzo Udaleko Alkatetzaren dekretu-liburua izango ditu, eta Hernaniko Udalak gordeko ditu. Toki-erakunde txikiko langileek edozein unetan kontsultatu ahal izango dituzte liburu horiek.

6. artikulua. Administrazio elektronikoa.

Hernaniko Udalak ezarriko ditu administrazio elektronikoari buruzko egungo legeriatik eratorritako eginbeharrak betetzeko behar diren baliabide guztiak. Hori egingo du udal administrazioaren gainerako bulego eta zerbitzuekin batera, Hernaniko Udala IZFERen laguntzarekin pixkanaka-pixkanaka ezartzen ari den esparruan. Era berean, Hernaniko Udalak inplementatuko ditu herritarrei eskaini ahal zaizkien zerbitzu telematiko berriak toki-erakunde hori egiten ari den programazio orokorraren testuinguruan.

7. artikulua. Gardentasuna.

Halaber, Hernaniko Udalak beteko ditu, bere betebeharrekin batera, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak aurre egin behar dien publizitate aktiboko eginbeharrak, baldin eta egiteko horiek eratoritzen badira gardentasunaren eta gobernu onaren arloan indarrean dagoen legeriatik.

8. artikulua. Datuak babestea.

Toki Erakunde Txikiak eskuratzen dituen datu pertsonalak eta bi erakundeen artean lagatzen direnak tratatuko dira 2016/679 (EB) Erregelamendua betez (pertsona fisikoen babesaren datu pertsonalen tratamenduari eta datu pertsonal horien zirkulazioari dagokionez eta datu horien zirkulazio askeari buruzko erregelamendua): Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.

Bigarren Titulua. Antolaketa eta Funtzionamendua.

9. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko zuzendaritza-organoak.

Honako hauek dira Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko organoak:

- a) Auzo-Alkatetza, pertsona bakarreko organo gisa.
- b) Auzo Batzordea, kide anitzeko organo gisa, Auzo Alkateak eta unean-unean indarrean dagoen hauteskunde-legeriaren arabera izendatzen diren kideen kopuruak osatua.

Organo horiek izan arren, Auzo Batzarrak egoki iritzitako beste organo osagarri sortu ahal izango ditu.

10. artikulua. Toki Erakunde Txikiko Idazkaritza eta Kontu-hartzaitzako eginkizunak.

1.- Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak eta, oro har, indarrean dagoen legediak idazkaritzari, kontu-hartzaitzari eta diruzaintzari esleitzen dizkieten eginkizunak Hernaniko Udalean lanpostu horiek betetzen dituzten pertsoneri dagozkie.

2.- Hernaniko Udaleko Idazkaritzak dagozkion eginkizunak beteko ditu, eta nahitaezko lege-aholkularitza gauzatuko da formalki eta behar besteko aurrerapenez eskatzen zaion guztietan.

3.- Hernaniko Udalaren Kontu-hartzailetzak autonomia osoz beteko du toki-erakunde txikiaren gaineko kontu-hartzailetzako eginkizuna, toki-ogasunei buruzko estatuko eta foru-araudian eta, bereziki, Tokiko Sektore Publikoko Erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzetan.

4.- Hernaniko Udalak idazkaritza-, administrazio-, kontabilitate- eta diruzaintza-lan jakin batzuk eskuordetu ahal izango dizkie Toki Erakunde Txikiak langileei.

11. artikulua. Auzo Udaleko alkatearen eskumenak.

Auzo Udaleko Alkatetzak Hernaniko Udaleko Alkatetzaren berezko eskumenak izango ditu. Eskumen horiek Toki Erakunde Txikiaren eskumen-eremura mugatuta daude, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 40. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bereziki, honako eskumen hauek izango ditu:

a) Toki Erakunde Txikiaren gobernu eta administrazioa zuzentzea, haren eskumenen esparruan.

b) Toki Erakunde Txikia ordezkatzeko erakundearen eskumenen esparruan, udalaz gaindikoa erakundeetan izan ezik (mankomunitateak, partzuergoak, tokiko garapen-agentziak, etab.); horietan, Hernaniko Udalak berak ordezkatzeko du Toki-erakunde Txikia.

c) Auzo Batzarraren bilkuretarako deiak egitea eta bilkuretako buru izatea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak erabakitzea kalitatezko botoaren bidez.

d) Auzo Batzarraren erabakiak exekutatzeko eta betearaztea.

e) Toki Erakunde Txikiaren eskumeneko zerbitzuak eta obrak zuzentzea, gainbegiratzea eta bultzatzea, bai eta, hala badagokio, erakundeak bere gain hartzen dituen langileak ere.

f) Toki Erakunde Txikiaren aurrekontua aplikatzea, haren kargurako ordainketak aginduta, eta haren kudeaketaren kontuak ematea.

g) Landa-bideen, iturri publikoen eta mendien kontserbazioa zaintzea, bai eta hiri-poliziako eta biziraupeneko zerbitzuak ere.

h) Toki Erakunde Txikiaren gainerako ahalmen guztiak, berariaz Auzo Batzarrari ez badagokio.

12. artikulua. Auzo Batzarraren eskumenak.

Auzo Batzarrak Hernaniko Udalaren Osoko Bilkuraren berezko eskumenak izango ditu. Eskumen horiek Toki Erakunde Txikiaren eskumen-eremura mugatuta daude, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zehazki, Auzo Batzarrak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Aurrekontuak eta exakzioen ordenantzak proposatzea, kontuak zentsuratzea eta kredituak aitortzea, betiere aurrekontu-zuzkidurarik badago.

b) Toki Erakunde Txikiaren ondasunak eta eskubideak administratzea eta kontserbatzea, eta herri-ondasunen aprobetxamendua arautzea.

c) Akzio administratiboak eta judizialak baliatzea.

d) Oro har, indarreko legeriak Udaltzari esleitzen dizkion eskumen guztiak, betiere Toki Erakunde Txikiaren eskumenen eremuan.

2.- Hernaniko Udalak berretsi egin beharko ditu Auzo Batzarrak ondasunak xedatzeari, kreditu-eragiketei eta nahitaezko desjabetzeari buruz hartutako erabakiak, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 41.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

13. artikulua. Auzo Batzarraren funtzionamendua.

1.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak bere burua antolatzeko duen ahalmenari ezertan eragotzi gabe, Auzo Batzarraren bilkuretarako deialdiak eta bere funtzionamendua, bai eta erabakiak hartzeko behar diren gehiengoaren araubidea ere, Hernaniko Udalaren Osoko Bilkurari aplikatzekoak zaizkion indarreko lege-xedapenen arabekoak izango dira.

2.- Auzo Batzarrak egiten dituen bilera guzti-guztien akta egingo da, eta bertan honako hauek jasoko dira: bertaratutakoen zerrenda, bileraren gai-zerrenda, jorratutako gaien laburpen laburra, hartutako ebazpenak eta botazioen emaitzak.

Hirugarren Titulua. Toki Erakunde Txikiaren eskumenak eta eskumen horiek baliatzeko ahalmenak.

14. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren eskumenak.

1.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren berezko eskumenak dira:

a) Ondarea administratzea eta kontserbatzea.

b) Landa-eremua eta mendiak garatzea: landa-bideak mantentzeko lanak, etxebizitza eta baserrietara iristeko.

c) Hiriko mantentze-lanak: espazio publikoak eta urbanizazioak mantentzeko lanak, lorezaintza-lanak.

d) Toki Erakunde Txikiaren eraikinak mantendu, garbitu eta zaintzea.

e) Udal-eskumeneko obrak egitea eta zerbitzuak ematea, baldin eta Toki Erakunde Txikiaren interes eskusibokoak badira, baina Hernaniko Udalaren kargura ez badaude.

2.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari eskuordetutako eskumenak honako hauek dira:

a) Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak eratu zenean bere gain hartu zituen eskumenez gain, artikuluan honen hurrengo paragrafoan zerrendatutako gaien gaineko eskumenak ere eskuordetzen zaizkio. Eskumen horiek guztiak dira Hernaniko Udalarenak, eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, eskumen horiek eskuordetzeak ez du inolako eraginik izango ez eskumenen titulartasunean, udalarenak izaten segituko baitute, ez herritarren bermei begira.

b) Hernaniko Udalak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren esku uzten du, bere lurraldean, honako gai hauen gaineko eskumenak baliatzea:

I. Bide publikoetako obrak.

II. Azokak eta merkatuak.

III. Merkataritza.

IV. Hezkuntza: hezkuntza-eskaintza hobetzea, eskolaz kanpoko jarduerak, guraso-eskolak.

V. Kirola sustatzea.

VI. Kultura: jaiak, kultura-ekitaldiak eta Toki Erakunde Txikiko liburutegia.

VII. Euskara: hizkuntza normalizatzeko politika, euskararen egoeraren azterketa eta jarraipena, euskararen erabilera sustatzea.

VIII. Gizarte-politika: berdintasuna, haurrak, gazteak eta immigrazioa.

IX. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena.

X. Haurtzaroan, gaztaroan eta hirugarren adinean aisialdia sustatzea.

3.- Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak Ereñotzuko egoiliarren intereserako garatzen den eta bere lurralde-eremuan dagoen edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio mota gauzatu ahal izango du, betiere eskumen propio, transferitu edo eskuordetu barruan sartzen ez bada, bikoiztasun-egoerak gertatzen ez badira eta Toki-erakundeko ogasunaren finantza-jasangarritasuna, oro har harturik, arriskuan jartzen ez bada.

4.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak eskumen propioak eta eskuordetuak egikaritzea Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren lurralde-eremura mugatzen da.

5.- Eskumenak egikaritzeko eskuordetza soilik egokitu beharko zaio legezketasun-printzipioari, eta Toki Erakunde Txikiko Auzo Batzarrak izango du ardura eskumen horiek exekutatzeko.

Hernaniko Udalak baliogabetu egingo du eskumenen eskuordetza, eskuordetutako eskumenen bat behar ez den moduan betetzen bada.

6.- Hernaniko Udalak beretzat gordetzen du eskuordetutako eskumenen erabilera kontrolatzeko ahalmena. Horretarako, egokitzat jotzen dituen txostenak eskatuko dizkio Toki Erakunde Txikiari. Txosten horiek eskumen bati edo batzuei buruzkoak izan daitezke, oro har, edo beste edozein espedienteri buruzkoak, bereziki. Nolanahi ere, txosten horien berri emango zaio Hernaniko Udalbatzari.

15. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren ahalmenak.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, bere eskumenak egikaritzeko, urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuan esleitu zitzaizkion ahalmenak izango ditu, betiere unean-unean indarrean dagoen araudiari egokituko zaizkionak. Xedapen horien arabera, Toki Erakunde Txikiari dagozkio, bere eskumenen esparruan betiere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1 artikulua udalerriei esleitzen dizkien honako eskumen eta ahalmen hauek:

- a) Erregelamenduak egiteko ahala.
- b) Bere burua antolatzeko ahala.
- c) Zergetako eta finantzeko ahalak.
- d) Jabetza kentzeko ahala eta bere ondasunak bere kabuz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko ahala.
- e) Bere egintzak zuzenbidearen arabekoak direla jotzen da eta betebeharrekoak dira.
- f) Egintzak nahitaez betearazteko ahala eta zehatzeko ahala.
- g) Bere egintzak eta erabakiak bere kabuz berrikusteko ahala.
- h) Herri-ogasunari bere kredituei dagokienez aitortzen zaizkion lehentasun, lehenespen eta gainerako prerrogatibak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako ogasunei dagozkienei ezertan eragotzi gabe; bere ondasunak eta eskubideak enbargaezinak dira, legeetan ezartzen denaren arabera.

Laugarren titulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren baliabideak.

16. artikulua. Udal ekarpena Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari.

1.- Toki Erakunde Txikiari eskuordetutako eskumenak, gutxienez, finantzatu dira Ereñotzuko Toki Erakunde Txikia sortzen duen urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuaren seigarren artikuluan eta eranskinean jasotako diru-izendapenen arabera (nahiz eta arau hori aldatu zuen martxoaren 29ko 10/2011 Foru Dekretuak), eta artikulua honetan jasotakoaren arabera.

2.- Hernaniko Udalerriak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari bermatuko dizkio gutxieneko diru-sarrerak bere antolamendu eta funtzionamendurako, bere eginkizunak betetzeko eta bere eskumen propioak baliatzeko, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak betetzeko ere. Gutxieneko diru-sarreratzat joko dira 16. artikulua honen babesean kalkulatuak.

3.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiarentzako urteko ekarpen ekonomiko arrunta Hernaniko Udalak onartutako hasierako aurrekontutik abiatuta kalkulatu da, eta horri Ereñotzuko biztanleriaren arabera haztapan-indize bat aplikatuko zaio. Ehuneko hauek aplikatuko dira gastu-kapituluen arabera:

(LG) Langile-gastuak.

1. kapitulua: % 0,7.

(ZG) Ondasun arruntak eta zerbitzuak eskuratzeko gastuak.

2. kapitulua: % 2.

(TA) Transferentzia arrunten gastuak.

4. kapitulua: % 0,5.

(IE) Inbertsio errealetako gastua.

6. kapitulua: % 2.

4.- Gainera, inbertsio errealen atalerako, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak hogeita hamar mila euroko urteko gehigarri finkoa izango du (30.000 €). Gehigarri horri EAEko urte arteko KPIaren aldakuntza aplikatuko zaio, 2010eko abenduko oinarria, urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretua indarrean jarri zen urtea, eta hurrengo ekitaldiak kontuan hartuta.

5.- Ereñotzuko biztanleriaren araberako haztapen-indizea urtero aplikatuko zaio udal-aurrekontuari, eta udalaren ekarpena puntu laurden bat igo edo murriztuko da Ereñotzuko biztanleria urtero handitzen edo murrizten den puntu bakoitzeko. 2011ko urtarrilaren 1eko biztanleria eta hurrengo ekitaldiak hartuko dira oinarritzat.

6.- Aurreko apartatueta kalkulaturako ekarpenak Udal Finantzaketarako Funtzaren likidazio negatiboen arabera doitu dira, udalak Toki Erakunde Txikiari egindako ekarpenak indarrean dagoen aurrekontuko diru-sarrerara arrunten gainean duen pisu espezifikoaren arabera.

7.- Hernaniko Udalak Toki Erakunde Txiki Diruzaintzaren beharren arabera egingo du urteko ekarpena, eta premia horiek udal-diruzaintzak ebaluatuko ditu.

8.- Hernaniko udalerriak eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak aparteko udal-ekarpenak adostu ahal izango dituzte Ereñotzuko inbertsio eta proiektu bereziei aurre egiteko, baldin eta egokiagotzat jotzen bada Toki Erakunde Txiki berak kontratatu eta kudeatzea inbertsio edo proiektu horiek.

9.- Hernaniko Udalak ordaintzen ez badu ezarritako epeetan egin beharreko ekarpenen zenbatekoa, Toki Erakunde Txikiak zenbateko hori atxikitze eskatu ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, edozein kontzepturengatik Hernaniko Udalari egin beharreko ordainketetan, ondoren Toki Erakunde Txikiari diru-sarrerara egiteko.

17. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren beste diru-sarrera batzuk.

1.- Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 58. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango ditu, gai horiek arautzen dituzten eta Toki Erakunde Txikiari aplikatzekoak diren legezko xedapenetan aurreikusitakoaren arabera; eta Hernaniko baliabideetan parte hartu ahal izango du.

2.- Era berean, Toki Erakunde Txikiak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren esparruan, honako baliabide hauek eduki ahal izango ditu:

a) Bere ondaretik etorritako sarrerak eta Zuzenbide pribatuko gainerakoak.

b) Dirulaguntzak.

c) Bere eskumen eremuko isun eta zehapenen emaitza.

d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

3.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari 11/1989 Foru Arauaren II. Tituluan eta hori garatzen duten xedapenetan udalerriei buruz xedatutakoa aplikatuko zaio, kasu bakoitzean bidezkoak diren zehaztapenekin.

18. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren aurrekontua.

1.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren aurrekontua Auzo Batzarrak onartuko du behin-behinean, eta Hernaniko Udalaren osoko bilkurak aurrekontu konsolidatua onartzen duenean finkatuko da behin betiko, Toki Erakunde Txikiarena barne.

2.- Hernaniko Udaleko Kontu-hartzaitzak parte hartu ondoren egingo dira Toki Erakunde Txikiaren aurrekontuen osaera, kapitulukako banaketa eta ekitaldi-amaierako likidazioa, eta Auzo Batzarrak onartuko ditu. Hernaniko Udalaren osoko bilkurari dagokio behin betiko onarpena ematea. Toki Erakunde Txikiaren aurrekontuaren onarpena eta likidazioa Hernaniko Udalaren aurrekontuekin konsolidatuko da.

3.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, Hernaniko Udalaren Kontu-hartzaitzaren adostasuna eta Auzo Batzarraren onespenerekin, aurrekontu- kapituluaren arteko aldaketak adostu ahal izango ditu beharren arabera. Aurrekontu-aldaketa horiek une bakoitzean toki-erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-legerian ezarritako muga eta irizpideetara egokituko dira.

4.- Hernaniko Udalak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari eskatu ahal izango dizkio, edozein unetan, bere baliabide ekonomikoen erabilera-maila eta esleituta dituen zerbitzu publikoen prestazio-maila zehazteko beharrezkoak diren txosten eta dokumentu guztiak, udal-funtsen erabilera eraginkorra bermatze aldera.

19. artikulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren kreditu- eta diruzaintza-eragiketak.

1.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak kreditu- eta diruzaintza-eragiketak egiteko gaitasuna du, eta eragiketa horiek toki-ogasunen arloko eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioen arabera aplikatu beharreko araudira egokituko dira.

2.- Aurreko apartatua gorabehera, Ereñotzuko Auzo Batzarrak kreditu- eta diruzaintza-eragiketei buruz hartutako erabakiak Hernaniko Udalak berretsi beharko ditu, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 52. artikuluan ezarritakoaren arabera beharrezkoak diren beste administrazio-baimen batzuk lortzeko betebeharrari ezertan galarazi gabe.

3.- Halaber, bere beharren arabera, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango ditu Hernaniko Udalarekin soilik beren artean, edo Hernaniko Udala izan daiteke eragiketa jakin batean abal-emailea Ereñotzuko Auzo Udalaren alde.

4.- Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailetzak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak jarraitu beharreko baldintzei eta prozedurei buruzko informazioa emango du. Era berean, Udal Kontu-hartzailetzak informazioa emango du Toki Erakunde Txikiak fidantzaren bat gordailutu behar duen kasuetan.

20. artikulua. Inbertsioak.

1.- Ereñotzuko Alkatetzak edo dagokion eremuan eskumenak dituen Auzo Batzarreko kideak egokitzat eta beharrezkotzat jotzen dituen inbertsioak sustatu ahal izango ditu Ereñotzuko auzo udalari begira, betiere udal-teknikarien irizpideak kontuan hartuta.

2.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak nahitaez bere aurrekontu arruntaren % 10 gainditzeko duen inbertsio handiren bati aurre egin behar izanez gero, eskola instalazioekin eta abarrekin lotutakoei, adibidez, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak bere aurrekontu arruntaren % 10aren baliokidea den kopurua jarriko du, eta gainerako zenbatekoa Hernaniko Udalak ordainduko du. Nahitaezkoa dela txosten tekniko bidez justifikatubeharko litzateke. **Alderdi hori txosten tekniko baten bidez egiaztatuko beharko da.**

21. artikulua. Gastuak.

1.- Gastu-prozedura izango da udalaren kontu-hartzailetzako organoak ematen dituen jarraibideetan adierazitakoa.

2.- Toki Erakunde Txikiak sei ehun euro arteko kutxa bat izango du gastu txikietarako (600 €). Zenbateko hori berritu ahal izango da Hernaniko Udalaren Kontu-hartzailetzak aldeko txostena eman ondoren.

22. artikulua. Beste xedapenak.

1.- Kontuen jarraipena egin ahal izateko, Hernaniko Udalak dituen baliabide elektronikoko guztiak jarriko dira Toki Erakunde Txikiaren eskura.

2.- Toki Erakunde Txikiak bere banku-kontu propioak izango ditu, eta kontu horiek hiru sinadurarekin amankomuntatuta izango dira: Alkatetzarena edo aldi baterako ordeztzen duen pertsonarena, Udal Kontu-hartzailetzarena eta Udal Diruzaintzarena.

Bosgarren Titulua. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren eta Hernaniko Udalaren arteko harremanak.

23. Artikulua. Udal-organoen bilkuretara joatea eta udal informazioa.

1.- Ereñotzuko Alkatetzak edo gai horretan eskumenak dituen Auzo Batzarreko kideak eskubidea izango du batzorde ezberdinen bileretara eta Hernaniko Udalaren Osoko Bilkuraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren bileretara joateko, hitzarekin baina botorik gabe, baldin eta bilera horietan eztabaidatuko bada Toki Erakunde Txikiari nabarmen eragiten dion edozein gai.

2.- Toki Erakunde Txikia eskubide horretaz baliatzeko, behar besteko aurrerapenarekin deitu beharko zaio, eta behar den dokumentazio guztia eskuratu ahal izango du. Zentzu horretan, Hernaniko Udaleko edozein zinegotzik duen dokumentazio bera aztertzeko eskubidea izango dute eta Hernaniko zinegotzietan deitzen zaien antelazio berberaz deitu beharko zaie.

Bestalde, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak Auzo Batzarraren deialdi guztien kopia eta harekin batera doazen agirien kopia bidaliko dizkie Alkatetzari eta Hernaniko Udaleko Idazkaritzari.

3.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko ordezkariaren batek parte hartzen duen osoko bilkuretan, Ereñotzuri eragiten dioten gaien buruzko galdera eta erreguak egin ahal izango ditu, baldin eta bilkura arrunta bada eta galdera eta erreguen puntu hori deialdian jasota badago.

4.- Edonola ere, Ereñotzuko Alkatetzak, idazki arrazoitu baten bidez, Hernaniko Alkatetzari baimena eskatu ahal izango dio bere ustez Ereñotzuko interesari eragin diezaikeen gairen baten inguruko eztabaidan entzuna izateko, baldin eta gai hori artikuluan honetan aurreikusitakoaren arabera jakinarazi ez bazaio. Baimen hori emandakotzat joko da dagokion bilkura hasi baino gutxienez hogeita lau ordu lehenago arrazoitutako berariazko ukatze-ebazpenik ematen ez bada.

5.- Udalak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari igorriko dizkio hartzen diren erabaki eta ebazpen guztien kopia edo laburpena, baldin eta Toki Erakunde Txikiaren interesari nabarmen eragiten badiete.

24. artikulua. Jarraipen Batzordea.

1.- Hernaniko Udalaren eta Ereñotzuko Udalaren jarduketak behar bezala koordinatzen direla eta Toki Erakunde Txikian bizi direnei eta bertan bizi direnei zerbitzu publikoak modu eraginkorrean ematen zaizkiela bermatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta honela osatuko da:

a) Hernaniko Udaleko bi ordezkari, udaleko osoko bilkurak izendatuak.

b) Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko bi ordezkari, Auzo Batzarrak izendatuak.

Bi erakundeak saiatuko dira gizonen eta emakumeen arteko parekotasunik handiena lortzen Jarraipen Batzorde honetako ordezkariak izendatzerakoan.

2.- Jarraipen Batzordearen eskumenak honako hauek dira:

a) Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren interesekin zerikusia duen eta Hernaniko Udalak iritzia eman behar duen edozein alderdiri buruzko proposamenak egitea.

b) Ereñotzuko Toki Erakunde Txikian bizi direnei eta helbidea dutenei zerbitzu publikoak behar den moduan ematen zaizkiela bermatzeko jarduerak koordinatzea.

c) Ereñotzuko udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundearen araubidea aldatzeko proposamenak egitea, betiere indarrean dagoen legeriak ezartzen duenari egokitzuz (araubidea urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuan jasota dago).

d) Egoiliarrentzat eta Toki Erakunde Txikian bizi direnentzat garrantzitsua den informazioa trukatzea bi erakundeen artean.

e) Interes komuneko proiektuak abian jartzea ahalbidetuko duten akordioak eta hitzarmenak proposatzea, betiere Ereñotzun bizi direnentzat eta bertan bizi direnentzat garrantzitsuak direnak.

f) Bi erakundeei dagozkien betebeharren jarraipena egitea.

g) Ereñotzuko Erakunde Txikiari buruz planteatzen den ekimen oro aztertzea, ekimen partikular batek edo beste edozein erakunde publikok sustatuta.

h) Ereñotzuko gaien kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko eta bi toki-erakundeen artean administrazio-bikoiztasunak ezabatzeko neurri egokiak hartzea.

i) Erregelamendu hau interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo desadostasunak argitzea.

j) Antzeko beste edozein eginkizun.

3.- Jarraipen Batzordea gutxienez hilean behin bilduko da, eta batzordeko ordezkari bakoitzak egokitzat jotzen badu eta formalki idatziz eskatzen badu aldi oro.

25. artikulua. Jarduteko prozedurak.

1.- Administrazio-prozeduretan, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikia indarreko lege-xedapenetara egokituko da.

2.- Ereñotzuko Alkatetzak eta Hernaniko Udaleko Alkatetzak administrazio-espeditenteei buruzko prozedura-eskuliburuak eta jarduera-protokoloak onartu ahal izango dituzte, erakunde bakoitzari dagozkion izapideak ezartzeko. Aipatutako eskuliburu eta protokoloen bidez zerrenda zabaldu ahal izango bada ere, honako irizpide hauek bete beharko dira:

A) Zerbitzu sozialak

Ereñotzuko biztanleek Hernaniko Udalak eskaintzen dituen eremu horretako zerbitzu guztiak erabili ahal izango dituzte, udalerrian bizi diren gainerako auzokideek egiten duten moduan.

Horretarako, Hernaniko Udalaren Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoak eta Ereñotzuko Auzo Udalak gizarte-zerbitzuak emateko sinatutako lankidetzeta-hitzarmenean xedatutakoari erreparatuko zaio.

B) Hilerria

Ereñotzuko egoiliarrek behar dituzten udal-hilerriko zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, Hernaniko gainerako egoiliarrek baldintza berberetan.

C) Kontratazioa

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak administrazio-kontratazioko espedienteak sustatu, izapidetu eta ebatzi ahal izango ditu, baldin eta aldez aurretik Udal Kontu-hartzaitzako organoaren aldeko txostena badu.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikia sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen legeriara egokituko da kontratazio-prozeduretan.

Kontratazio-prozedurak hala eskatzen duen kasuetarako, kontratazio-mahai bat eratuko da, sektore publikoko kontratuen legerian xedatutakoaren arabera.

D) Kontsumoak

Toki Erakunde Txikiaren eraikinetako argi- eta gas-kontsumoak eta argiteria publikoaren kontsumoa Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren kontura izango dira.

E) Hitzarmenak

Ereñotzuko lurralde-eremuari eragiten dioten eta Toki Erakunde Txikia eratu aurrekoak diren hitzarmenen ondoriozko konpromisoak, betebeharrak eta onurak berrikusteko proposatu ahal izango dio Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak Hernaniko Udalari. Nolanahi ere, hitzarmen horietan Ereñotzuko Toki Erakunde Txikia subrogatuko da, dagokion zatian.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak bere eskumen-eremuari eragiten dioten hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu hirugarren erakunde eta instituzioekin, betiere Hernaniko Udaleko zerbitzu eskudunen aldeko txostena badute.

F) Eskola-kirola eta ikasleentzako kultura-eskaintza

Hernaniko Udalak bermatuko du Ereñotzuko ikasleek Hernaniko gainerako ikasleek duten kirol- eta kultura-eskaintza bera izango dutela.

G) Basozaintza

Hernaniko Udaleko Basozaintzak izango du eskumena bideak eta auzo-lurrak mantentzeko beharrak antzemateko. Basozaintza horrek Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari bidaliko dizkio txostenak edo iradokizunak egin beharreko lanak txikiak eta mantentze hutsekoak badira. Hala ere, hartu beharreko neurriak handiago eta garrantzitsuagoak badira, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari eta Hernaniko Udalari jakinaraziko die.

Hernaniko Udaleko Basozaintza zerbitzu bereziak behar izanez gero, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak Udalari eskatuko dio Alkatetzaren edo Auzo Batzarreko edozein kideren bitartez.

H) Kale-garbiketa, lorategiak eta eraikin publikoen garbiketa

Espaloiak, parkeak, lorategiak, kirol-instalazioak eta Ereñotzuko beste edozein hiri-eremu garbitzeko lanak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren kontura izango dira. Orobat, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak berak garbituko ditu auzo-egoitza eta eskola.

Edonola ere, Auzo Batzarrak edo Alkatetzak eskatuta, Ereñotzun egin beharreko garbiketa-lanak Hernaniko Udalak udalerriko gainerako tokietarako oro har egiten dituen garbiketa-kontratetan sartuko dira. Kasu horretan, Hernaniko Udalak kontratatutako enpresek zuzenean fakturatuko diote kostua Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari, eta kostu osoa Hernaniko Udalari fakturatzen bazaio, horrek Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari dagokion zatia jasanaraziko dio.

Nolanahi ere, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak zuzenean kontratatu ahal izango ditu egokitzat jotzen dituen garbiketa-zerbitzuak.

I) Mantentze-lan orokorrak

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari dagokio, berezko eskumen gisa, honako mantentze-lan hauek egitea:

1. Etxebizitzetarako eta baserrietarako sarbidea ematen duten landa-bideak.
2. Espazio publikoak eta urbanizazioak (azpian letra honetan zerrendatzen diren hornidura-sareak izan ezik).
3. Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren eraikinak.

Nahitaezko esku-hartze jakin bat mantentzeko lanen kostua Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa bada, Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak bere aurrekontu arruntaren % 10aren baliokidea den kopurua jarriko du, eta gainerako zenbatekoa Hernaniko Udalak ordainduko du. Nahitaezkoa dela txosten tekniko bidez justifikatu beharko da.

Mendien eta mendi-bide publikoen eremuko mantentze-lanak eta bestelako lanak Hernaniko Udalak egin eta finantzatuko ditu.

Ereñotzuko Alkatetzak edo Auzo Batzarreko pertsona eskudunak egoki iritzitako mantentze-lanak egiteko aginduak eman ahal izango dituzte, betiere udaleko teknikarien irizpideak kontuan hartuta. Udaleko langileek mantentze-lanen bat egitea beharrezkotzat jotzen badute, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari jakinaraziko diote lanak hasi aurretik.

Argia, ura, telekomunikazioak, estolderia, ur-hornidura eta iturri publikoak mantentzeko behar diren lanak eta materialak Hernaniko Udalaren kontura izango dira.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko espazio edo eraikin publikoetan egiten diren beste obra eta mantentze-lan batzuk, Hernaniko Udaleko ur- eta argi-brigadek edo obra-brigadek zuzenean egiten dituztenak, bi erakundeen artean ordainduko dira; Udalak ordainduko ditu langileen kostuak eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, aldiz, erabili beharreko materialen kostuak ordaindu beharko ditu.

J) Biztanleen errolda

Ereñotzuko biztanleen erroldarekin lotutako izapide guztiak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko langileek egingo dituzte. Horretarako, Auzo Udaleko langileek izapideak beteko dituzte Hernaniko Udaleko Idazkaritzaren jarraibide teknikoei jarraikiz.

K) Ondarea

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren ondarea Hernaniko Udalaren osoko bilkurak 2010eko urtarrilaren 28an hartutako erabakiak zehazten du (urriaren 7ko 26/2010 Foru Dekretuaren eranskinean jasota dagoena), bai eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak geroago eskuratu duen ondarea ere.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, Hernaniko Udalarekin lankidetzan, ondasun higiezin eta eskubide errealen inskripzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, indarrean dagoen legeriaren arabera, bere ondasunen inbentarioa egin beharko du, eta, horretarako, Hernaniko Udalaren Idazkaritzaren eta Kontu-hartzailetzaren laguntza tekniko eta juridikoa izango du.

Ondasunak aseguratzearen kostua Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari dagokio.

Hernaniko Udaleko Alkatetzak eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko Alkatetzak egoki eta beharrezko diren gestioak egingo dituzte Donostiako Apezpikutzaren aurrean, azken horrek lehengo apaizetxea Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari laga diezaion.

L) Langileak

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko langileen lan- edo funtzionario-harremana Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren eta dagokion pertsonaren artean ezarriko da. Langile horien ordainsariak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren kontura izango dira.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak bere plantillarentzat beharrezkotzat jotzen dituen langileak Hernaniko Udaleko plantillakoak izango dira, eta kanpoko kontratazio bat egitea beharrezkotzat jotzen bada, enplegatu publikoa kontratatuko da Hernaniko Udalak ondorio horietarako jarraituko duen lehia-prozesu batetik edo, bestela, Udalak erabakitutako dituen lan-politsetatik.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko plantillan langile berriak sartzeko, Toki Erakunde Txikia eta Hernaniko Udala ados jarri beharko dira. Hala ere, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko langileak entitate horrek bereizi ahal ditu aldebakarrez, horretarako arrazoi sendoak daudela uste duenean. Nolanahi ere, Hernaniko Udalak ezin izango ditu bere lanpostuetatik mugitu Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiko langileak Auzo Batzarraren alde aurreko adostasunik gabe.

Hernaniko Udaleko langileek emango diote laguntza teknikoa Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari bere eskumenak gauzatu eta egikaritzeko. Laguntza hori Ereñotzuko Alkatetzak edo Auzo Batzarreko kideek eskatuko dute, bereziki honako eremu hauetan:

- a) Idazkaritza.
- b) Kontu-hartzailetza.
- c) Arkitektura eta hirigintza.
- d) Administrazio-kontratazioa.
- e) Zerbitzu juridikoak.
- f) Langileak.
- g) Obrak eta mantentze-lanak.
- h) Informatika.

i) Artxiboak.

j) Hizkuntz politika.

k) Basozaintza.

l) Udaltzaina.

Laguntza hori ezin izango da atzeratu, ezta lehentasun hurrenkeran baztertu ere, Udalak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiarekiko duen hierarkia-nagusitasuna dela eta.

M) Udaltzaingoa

Hernaniko Udaleko Udaltzainek Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren lurralde-eremuan baliatuko dituzte beren eskumenak.

Udaltzaingolari lotutako behar bereziren bat hautematen bada (kultura-, gizarte- edo kirol-ekintza bereziak, etab.), esku-hartze berezi hori Ereñotzuko Alkateak edo Auzo Batzarreko pertsona eskudunak eskatuko dio Hernaniko Udalari.

N) Osasun zerbitzuak

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak egokitzen eta beharrezkotzat jotzen dituen osasun-zerbitzuak adostu ahal izango ditu Osakidetzarekin. Zerbitzu horiek, ahal den neurrian, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren auzo-etxean eskainiko dira.

O) Telekomunikazio arloko zerbitzuak

Udalek arlo honetan eskaini eta bermatu behar dituzten zerbitzuak Hernaniko Udalak eskaini eta bermatuko ditu.

P) Dirulaguntzak

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak zuzenean egin ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen diru-laguntzen eskaerak, baina, nolabehar ere, eskatu dituen dirulaguntza horien berri emango du Jarraipen Batzordearen bileretan.

Hernaniko Udalak eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak aldi berean laguntzarik eskatu ezin duten toki-erakundeentzako diru-laguntza publikoen deialdian, bi alderdien artean adostuko da Hernaniko Udalaren eskaeran Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren alde diruz lagun daitekeen jardueraren bat sartzeko aukera.

Q) Turismo

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak sustatu ahal izango ditu turismo-arloko ekimenak eta proiektuak.

Udalak eta Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak koordinatuko dituzte gai honen inguruko ekimenak.

R) Hirigintza eta ingurumena

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak jasoko ditu honako lizentzia hauetarako eskaerak: obra handi eta txikietarako, bereizketarako, jarduerarako eta Hernaniko Udalak ebatzi beharreko antzeko beste edozein lizentziarako. Eskaera horiek Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak ahalik eta lasterren igorriko dizkio udaleko dagokion sailari.

Hernaniko Udalak emango ditu lizentzia horiek, eta, prozedura horiek izapidetzeko, Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren txostena eskuratu beharko du, baldin eta Ereñotzuko obra eta zerbitzuei eragiten badiete.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiaren lurralde-eremuan eragin nabarmena duten hirigintza-planak izapidetzeko, toki erakundearen Auzo Batzarraren txostena beharko da beti.

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak obrak sustatu eta etxebizitzak eraiki ahal izango ditu Hernaniko Udalak ezarritako irizpideei jarraituz eta betiere aplikatu beharreko legeria betez.

S) Ordenantza eta erregelamenduak

Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak bere eskumeneko gaitan ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko.

Seigarren Titulua. Beste erakunde eta entitate batzuekiko harremanak.

26. artikulua. Beste erakunde eta entitate batzuekiko harremanak.

1.- Hernaniko Udalak ordezkatu du Toki Erakunde Txikia Hernaniko Udalak parte hartzen duen udalaz gaindiko erakunde eta antolakundeetan (mankomunitateak, partzuergoak, tokiko garapen-agentziak, etabar).

2.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak zuzenean ezarri ahal izango ditu lankidetzak eta kolaborazio-akordioak eta hitzarmenak Toki Erakunde Txikiaren eskumenekoak diren zerbitzuak ematen dituzten udalaz gaindiko instituzio eta erakundeekin, betiere Udalak akordio eta hitzarmen horietan parte hartzen ez badu.

3.- Nolanahi ere, Hernaniko Udalak Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiari jakinaraziko dizkio berariaz eta zuzenean eragiten dioten erabaki guztiak, eta eragin hori oso handia bada, Hernaniko Udalak Toki Erakunde Txikiaren txostena eskatuko du dagokion ebazpena hartu aurretik.

4.- Ereñotzuko Toki Erakunde Txikiak, bere ordezkarien bidez eta bere eskumenen esparruan, udalaz gaindiko beste erakunde eta entitate batzuekin izan ditzake harremanak zuzenean (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Añarbeko Urak, etabarrekin), eta Hernaniko Udalarik jakinarazi beharko dizkio egindako gestioak jarraipen Batzordearen bidez.

Azken xedapena. Erregelamendu hau Hernaniko Udalaren Osoko Bilkurak eta Ereñotzuko Auzo Batzarrak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean jarriko da indarrean. Arau hau aldatzeko edo indargabetzeko ere izapide berak egin beharko dira.

